

Trikitixa edo rock

I. ARREGUI

Trikitixa txapelketaren berri eman nairik nartorkizu. Trikiti izenarekin sonujotze edo rock txapelketa biurtzen ari zaigu azken urte auetan. Ikusi besterik etzan, rock dantzatzan asi zen gizon ausarta, sonu ura entzutean. Nik txalotu egin nuan, ark baze-kielako arin-arinak eta rock-ak zer diferentzu duan.

Naiz eta Pako Aristiri zalantza sortu gizon orretaz. Onela dio bere idatz lanean: «Ez dakit neurritz gora edana zegoelako edo bere dantza artaz entzuten ari giñena trikitixatik oso urrun zegoela adierazi nai zuelako. Or gelditzen da nere zalantza».

Erantzun auxe eman nai diot: ura dantzatzan ari zanean ez giñan trikitixa entzuten ari, arin-arin antzekoa baizik. Zergatik dantzatu zuan zalantza badezu, ni ajedrezean bezela zaude trikiti munduan; eta arritzen naiz gaiaren berri jakin gabe mundu orretan sartzea. Kontzietoa entzutera joan bagifia pozik egongo giñan, txaloga-riak dira gaurko soñujoleak eta. Bañan trikitixa entzutera joan giñen eta or galdu zuan askoren ametsa.

Trikiti berriaren izena ezarri diote norbaitzuk. Ori orrela balitz dantza barria asmatu

bearko litzateke.

Trikitixa eta fandangoa ez dira berdinak, orain berdin xamar erabiltzen badira ere. Eta ez dira berdin dantzatzan, edo ez dira berdin dantzatu bear.

Trikitixak badu aire berezi bat edozeinek eraman ezin diona. Lenago ere baziran soñulari famatuak, munduko txapeldun izatera iritsi zirenak trikiti aiderik erabiltzen etzekitenak.

Txapeldunak badakite ongi, berak jo dutena, ez dela trikitixa, bañan txapela jantziko bazan orrela jo bear zan. Bai jo ere eta Txapela irabazi. Zorionak?.

Bañan ez uzte uste trikitixa jotzen ez dakitenik. Gero sariak jasotzerakoan eskeini ziguten benetako trikitixa. Lotsagarria izango zen nunbait txapelketan trikitixa. Lotsagarria izango zen nunbait txapelketan trikitixa ori jotzea.

Amabost txapelketa auetan oso gertutik ibili naiz, badakit oso zaila dela nor oberena den aukeratzea, baina oso erreza da zer jo bear duten jakitea: Trikitixa, porrusalda, eta abar. Nere ustez lau bikotek eman dio trikitiaren usaia; beste laurek berak jakingo dute zer jo duten, nik ez nioten ulertu ta.

Txapelketa au antolatzeko ainbeste aldirik elkartu zerate, urtean zera, trikitilari eta antolatzailleak. Zertaz mintzatzan ziñaten?. Etzerate konturatzen trikitixa ez dela egiten fandangoari abestia ezarrita?. Bakaillu txapelketan ez da onartzen marmitakorik, baina emen bai. Nere ustez trikiti berririk iñork ez du asmatu. Txapelketa ori da trikitibarriak asmatzeko sortua; baizik, trikiti aideak nork obeto erabiltzen dituen jakiteko.

Azkoren uztetan soinu txikiz jotzen den gutzia trikitixa da. Eta ori ez da orrela. Trikitixa abestia daraman aide berezi bat da, fandangoa eta arin-arinarekin zer ikusirik ez duena.

Naigabeturik nago ainbeste jendeari entzuteaz; ni ez naiz geiago txapelketara etorriko giro au ez bada aldatzen.

Urrengo txapelketan Trinidadeko plaza ez al da aundiegua izango? Ordurako badut itxaropena zuzenduko dela, okerra nun dagoen konturatzen bagera. Egiak badu bere bidea.